

**DESTILERÍAS ACHA. LIKOR FABRIKA
DESTILERÍAS ACHA. FÁBRICA DE LICORES**

(AVPIOP/IOHLEE)

Araba Álava
Amurrio

*Beatriz Herreras Moratinos
María Romano Vallejo*

Arabako eta, zehazki, Arabako Errioxako ardogintza-tradizioarekin batera, pattar-fabrikazioak ere izan du garrantzirik lurralde horretan. Alkoholdun edari hori destilazio bidez lortzen da, pitarrak eta uxualak oinarri hartuta. Arabako Errioxan bakarrik, XIX. mendearen erdialderako, 37 pattar-fabrika zeuden orotara. Mende berrian sartzea lortu zutenek dibertsifikatu eta modernizatu egin behar izan zuten, garai berrietara egokituta. Birmoldaketa handi hori gertatzearekin bat, sektoreko lantegiek eragin-eremua zabaldu zuten, Kantauri mendilerroak mugatutako esparru estuetatik irtenda. Amurrion, Gasteizen edota Laudion ipini zituzten lantegiak, baita Bergonda (Lantaron) herri txikian ere.

Egun Amurrion dagoen pattar- eta likore-lantegia Pablo Pomes frantziarraren ekimenez sortu zuten. Pomesek Bilbon ekin zion enpresa-jardunari 1831. urtean, eta, urte batzuk geroago, lantegi berria ipini zuten Aretan (Laudio). Bertako buru Manuel Atxa izan zen. Enpresari frantziarra hiltzean, elkarte desegin eta Atxak hartu zuen ardura bere gain. Orduan, 1886. urtean, Amurrion aldatu zen, eta bertan ipini zuen praktikan ordura arte ikasitakoa. Bere markek izen handia lortu zuten, bai Espainian, bai Hego Amerikan: Anís Acha, Anisete Extrafino, Pipermenta,

Junto con la tradición vitivinícola de Álava, y en concreto de la Rioja Alavesa, ha existido la vinculada a la fabricación de aguardientes, bebida ésta alcohólica que por destilación se obtiene de vinazas y orujos. Sólo en la Rioja Alavesa y a mediados del siglo XIX existían un total de 37 fábricas de aguardiente. Las que lograron entrar en el nuevo siglo tuvieron que diversificarse, modernizarse, acorde con los nuevos tiempos. A la vez que se produjo esta fuerte reconversión las fábricas del sector ampliaron su área de influencia, saliendo de los estrechos marcos limitados por la Sierra de Cantabria. Se instalaron fábricas en Amurrio, Vitoria-Gasteiz, Llodio o en la pequeña localidad de Bergüenda en Lantaron.

La creación de la fábrica de aguardientes y licores actualmente establecida en Amurrio fue una iniciativa del empresario francés Pablo Pomes, quien había comenzado su actividad empresarial en Bilbao en 1831, instalando años más tarde una nueva fábrica en Areta (Laudio/Llodio) al frente de la cual estuvo Manuel Acha. A la muerte del empresario francés la sociedad se disolvió y Acha adquirió el control de la empresa. Y así fue como en 1886 se trasladó a Amurrio, donde puso en práctica los conocimientos adquiridos. Sus marcas alcanzaron notable

Curaçao Iberia, moka-krema, Chauva kakao-krema, Kirsch, Bitter; Amer; El Cartujo, Licor Amarillo berezia, Licor Capuchino, koñaka, rona... Produktu horiek sekulako arrakasta lortu zuten, artikulu horiek guztiak ekoizten zituen El Tigre markarekin.

Maximino Atxak instalazioak zaharberritu zituen 1926. urtean, eta 1940rako Destilerías Manuel Acha, Fábrica de Licores izena zeukan. Gaur egun arte enpresaren kontrola sendiaren esku dago. Enpresari horren ekimenez Karpy likorea, O.Trebogad koñaka edota Atxa patxarana ere sortu dira.

Acha likore-fabrikak 15.000 m²-ko azalera hartzen du, eta garraiorako kokapen ezin hobea du (Bilbo-Madril eta Gasteiz-Balmaseda errepideetatik gertu, eta Bilbo-Tutera trenbidearen ondoan). Jatorriz herrigunetik aldentutako eremu batean dago, trenbidearen ondoan. Gaur egun, ordea, hirigintzak izan duen hazkundea dela-eta, ia bizitegi-gune batean sartuta dago. Etxebizitzetatik errepide batek banatzen ditu. Era berean, inguru horretan kokatzea erabaki zuten beste lantegi batzuk ere baditu ondoan. Enpresa historiko honek martxan jarraitzen du eta bere instalazioetako batzuk egun enpresa-museo dira. Edariekin lotutako sektorearen adibide garbia da; eraikin zainduak dituen (eraikinak bezereoren aurreko aurkezpen-gutun gisa ulertzen dituzte). Multzoaren buruan hiru solairuko eraikina dago; bertan, enpresariaren etxebizitza eta bulegoak daude. Horri atxikita, galdara- eta berokuntza-nabeak daude. Atzeko aldean patio bat dago, egun estalita. Patio horren eginkizuna ontze-sailetara, botilaratzeko atalera eta lehengaien zein

prestigio tanto en el mercado estatal como en América del Sur: el Anís Acha, el Anisete Extrafino, Pipermenta, Curaçao Iberia, la Crema de Moka, la Crema de Cacao Chauva, kirsch, bitter; amer; El Cartujo, el especial Licor Amarillo, el Licor Capuchino, el coñac y el ron de la firma fueron productos que lograron éxito, entonces, bajo la marca de fábrica «El Tigre», que abarcaba todos estos artículos.

En 1926 Maximino Acha modernizó las instalaciones montando una destilería a vapor y ya en 1940 se constituyó el actual nombre de «Destilerías Manuel Acha, Fábrica de Licores», manteniéndose hasta nuestros días en manos de la familia el control de la empresa. A la iniciativa de este empresario se deben también el Licor Karpy, el coñac O. Trebogad o el Patxaran Atxa.

La licorería Acha se encuentra ubicada sobre una superficie de 15.000 m², con una inmejorable situación para el transporte, ya que se encuentra cerca de las carreteras que unen Bilbao con Madrid y Vitoria-Gasteiz con Balmaseda y junto a la línea del ferrocarril de Bilbao a Tudela. Está situada en una zona que en origen quedaba alejada del núcleo urbano, junto a las vías del ferrocarril, pero que en la actualidad, debido al crecimiento urbanístico de la zona, queda prácticamente integrada en un espacio residencial, aunque separada de las viviendas por una carretera, y junto a otras fábricas de la localidad que también se ubicaron en ese emplazamiento. Esta histórica empresa continúa en activo y parte de sus instalaciones son hoy un museo de la empresa. Es un ejemplo del sector vinculado a las bebidas, que cuida sus edificaciones, entendiéndolo que ellas son la carta de presentación hacia sus potenciales clientes. El conjunto lo preside un edificio de tres alturas que acoge la vivienda del empresario, los despachos y las oficinas, al



Destilerías Acha enpresaren instalazioen ikuspegi orokorra 1910ean, Bilbotik Tuterarako trenbidearen alboan. (Destilerías Acha Artxiboa)

Vista general de las instalaciones de Destilerías Acha en 1910, junto a la línea del ferrocarril de Bilbao a Tudela. (Archivo Destilerías Acha)



Bulego eraikinaren albokoa; ondoan geroago eraikitako biltegia dago. (Santi Yaniz)

Lateral del edificio de oficinas, a cuyo lado se observa un almacén construido con posterioridad. (Santi Yaniz)

bukatutako produktuen biltegi zabaletara ematen duten guneak antolatzea eta banatzea da.

Bulegoen eraikinak oinplano karratua dauka (8 x 8 m), hiru solairu gehi sotoa. Egurrezko egitura eta harrizko zein harlanduzko murrak ditu, zarpiatuta eta igeltsuztatuta. Fatxada nagusiak hiru erregistro eta hiru argiztapen-ardatz burudun dauzka —beheko solairuko erdialdekoa barrura sartzeko— harlanduz inguratuta. Alboko fatxadan begiratori-galeria dago, 40ko hamarkadan eraikia; sekzio zirkularra eta dentikuludun grekak dituzten zutabeen artean bao horizontalak ageri dira, bai eta beste sarbide bat ere atzeko aldean. Bulegoen eraikina estilo kultu zainduagatik nabarmentzen da; esaterako, lau fatxadak zeharkatzen dituen inposta-lerro bikoitza, simetria-ardatzak nabarmentzen dituzten zutabe toskanarrak, edota dentikuludun grekaz inguratutako baoak.

Elaborazio-nabeak oinplano angeluzuzena dauka (25 x 12 m), bai eta bi solairu eta sotoa ere. Eraikinari egurrezko lau zutabek eusten diote, harroin-kapiteletan txertatuta eta upelategian barrena modu irregularrean banatuta. Goiko solairuan, berriz, perimetriko murruek eusten diote egiturari; murre horien gainean burdin laminatuzko habeek hartzen dute oinarri, ondoren estalkiari eusteko. Estalkia laua eta hormigoizkoa da, eta arima beteko habe ijestuak dauzka. Murruek harlangaitz zarpiatuz landuta daude; barnealdea, berriz, azulejuz xafatuta, eskantzuetan izan ezik (horietan, dentikuludun grekazko harlanduak ageri dira). Barrura sartzeko karga-tunel bat dago, nabearen albo luzeetako batean irekita; botilak biltegitzeko egungo gu-nearekin komunikatuta dago. Argia murruetako baoetatik sartzen da (bi burudunak, upelategian egurrezko baketa handiak dituztenak, eta nabearen ardatz bertikaleko puntu erdiko beste bi ere bai). Halaber, teilatutik ere sartzen da argia, bertan branka-argi jarraitua baitago. Barnealdean Bor-

cual se encuentra adosada la nave de calderas y la de calefacción. En la parte trasera se abre un patio hoy cubierto cuya función es la de ordenar y distribuir los espacios que dan acceso a los departamentos de envejecimiento, sección de embotellado y amplios almacenes de materias primas y producto acabado.

El edificio que alberga las oficinas es de planta cuadrada (8 x 8 m), de tres alturas más sótano. Presenta estructura de madera y muros de mampostería y sillar, enfoscados y enlucidos. La fachada principal se ordena en tres registros y tres ejes de iluminación adintelados —el central de la planta baja para acceso al interior— recercados por sillares. En la fachada lateral hay una galería-mirador, adosada en los años cuarenta, con vanos horizontales enmarcados entre columnas de sección circular con grecas de dentellones, y en la zaguera se rasga un acceso más. Destaca este edificio de oficinas por su cuidado estilo culto, representado en doble línea de impostas que recorren las cuatro fachadas, columnas toscanas que subrayan los ejes de simetría y los vanos recercados con greca de dentellones.

La nave de elaboración es de planta rectangular (25 x 12 m) de dos alturas y bodega. El edificio se sustenta en cuatro pilares de madera con capiteles de zapata empujados en la piedra y distribuidos de manera irregular por la bodega. En la planta superior la función sustentante es llevada a cabo por los muros perimetrales, donde se apoyan vigas de hierro laminado que soportan la cubrición, la cual es plana, de hormigón, con vigas laminadas de alma llena. Los muros se labran en mampostería enfoscada, enchapada al interior con azulejos, salvo en los esquinales, donde se utilizan sillares en greca de dentellones. Se accede al interior mediante un túnel de carga abierto en uno de los lados largos de la nave, que comunica con la actual zona de almacenaje de botellas. La iluminación procede de los vanos abiertos en los muros —dos adintelados con baquetones de madera en la bodega y otros dos de medio punto verticalizados en la nave— así como del tejado, donde hay un linternón corrido. En su interior encontramos

deleko Hervé & Moulin etxeak egindako alanbikak daude; horiek direla-eta, sei metroko tximinia baten beharra nabarmentzen da, galdararentzat. Tximiniak sekzio zirkularra eta bistako adreilua ditu, eta sekzio karratuko zokalo bati txertatuta dago. Halaber, koroan moldura txikiak ere ageri ditu.

Galdara-nabeak oinplano karratua (albo bakoitzak 15 m) eta solairu bakarra dauzka. Sekzio zirkularreko burdinurtuzko zutabeak ditu egituran, burdina ijeztuzko habeei eusten dieten kapitel eta guzti; murrak harlangaitz zarpiatuz eginda daude eta hormigoizko estalki laua du. Elaborazio-nabetik sarbide burudun bat du, baita argia sartzeko bost bao ere –murruetako batean hiru, eta bestean bi–. Bao guztiak burudunak dira, eta giltzarria nabarmenduta daukan arku eskartzano faltsu batek inguratuta. Multzoa xx. mende hasierako industria-arkitekturaren adibide bikaina da.



Burdeos Herve & Moulin markako alanbikkeen xehetasuna; distilategiak lantegiaren barruan daude. (Santi Yaniz)

Detalle de los alambiques de la marca Burdeos Herve & Moulin que la Destilería conserva en el interior de la fábrica. (Santi Yaniz)

Manuel Atxak bi ur-jauziren eskubideak ere erosi zituen 1899. urtean, bi indarretxe eraikitzeko: bata Sarria (Zuia) 36 metroko jauziarekin, eta bestea Beluntzan (Urkabustaiz) 134 metroko jauziarekin, Sietefuentes erreka gainean. Horietatik lortutako argindarra Amurrioko lantegia hornitzeko baliatzen zuten, eta gainerakoa inguruko herriei saltzen zieten, argiztapenerako. Indarretxe horien bidez, energetikoki buruaski izatea zen helburua; izan ere, garai hartan indarretxeak lantegiaren luzapentzat hartzen zituzten.

Egun eraikinok desaginda daude, eta ez da geratzen garai bateko turbinarik ez eta makinarik ere, horiek gordezkeko eraiki bazituzten ere.

los alambiques fabricados por la casa de Burdeos Herve & Moulin que certifican la necesidad de una chimenea de seis metros de altura, que da servicio a la caldera, de sección circular de ladrillo visto empotrada en el zócalo de sección cuadrada. Presenta, también, pequeñas molduras en la corona.

La nave de caldera es de planta cuadrada (15 m de lado) de una sola altura, con estructura de columnas de hierro fundido de sección circular con capiteles que soportan vigas de hierro laminado, muros de mampostería enfoscada y cubierta plana de hormigón. Presenta un acceso adintelado desde la nave de elaboración y cinco vanos de iluminación –tres en uno de los muros y dos en otro–, todos ellos adintelados y recercados por un falso arco escarzano con la clave resaltada, y baquetones de madera. El conjunto es muy representativo de la arquitectura industrial de principios del siglo xx.

En 1899 Manuel Acha adquirió también los derechos de dos saltos para la construcción de sendas centrales hidroeléctricas: en Sarria (Zuia) de un salto de 36 m y en Beluntza (Urkabustaiz) de un salto de 134 m sobre el arroyo Siete Fuentes, cuyo fluido serviría para abastecer a su fábrica de Amurrio, vendiendo el sobrante para el alumbrado a los pueblos de alrededor. Con ello se buscaba ser autosuficiente en cuanto a sus necesidades energéticas, en una época en que las centrales eléctricas eran consideradas una prolongación de la fábrica.

Hoy estos edificios se encuentran desmantelados, carentes de las turbinas y de la maquinaria que justificaron su construcción.